# BIDEAN ZEHAR


Testua eta irudiak: MARIANA RUIZ JOHNSON

Itzulpena: XABIER OLASO



Koloretako kartoizko liburua. 19X19 cm. 26 or. 10 €.

**Bidean zehar** (euskara)
ISBN 978-84-9172-088-1. Kartoizko orriak.

**Por el camino** (gaztelaniaz)
ISBN 978-84-8464-296-1. Acartonados. Prelectores

**Polo camiño** (galegoz)
ISBN 978-84-8464-297-8. Acartonados. Prelectores.

**Enfilant el caminet** (katalanez)
ISBN 978-84-16804-09-2. Cartró. Pre-lectors.

**Lungo il cammino** (italiera)
ISBN 978-88-95933-74-0. Cartonati. Prelettori.


*Olibak eta kakahueteak aldean,*

*bidean zehar harat-honat,*

*elefante ama zetorren*

*eta bere elefantekumea: BAT ...*

Alaitasuna, erritmoa eta musikaltasuna darizkion haur kanta-poema da “Bidean Zehar”. Animalia ezberdinak dira protagonista -elefanteak, saguak, katuak eta hartzak ere tarteko- , eta bertso oktosilabo hauen erritmoan dihardute, zenbaki-hurrenkera markatzen dutela. Horrela, bada, 1etik 10era bitartean, pertsonaiak zenbatzen hasten dira, jai giroko helmuga harrigarrira iritsi arte.

“Ama”ren ondoren, Ruiz Johnsonek VI Nazioarteko Konpostela Album Ilustratuaren Saria irabazi zuen obra, hain juxtu, eta “El viaje de mamá”, aurre-irakurleentzako eta lehen irakurleentzako kartoizko liburu honetan, egileak, berriro ere, familia hartzen du gaitzat.

Lehenengo zenbakiak ikasteaz batera, “Bidean zehar” liburuak, bestalde, jaki ezberdinak ezagutzeko aukera ez ezik, jakiok eramaten dtuztenen berezko ezaugarri batzuk ezagutzeko egokiera ere ematen du. Kolore askotako ilustrazioak izatea da inondik ere irudi dinamikoak, adierazkorrak eta ezagutzeko modukoak ere badituen irakurgai dibertigarri honen interesguneetako bat.




- **Gaia:** haur poema.
- **Adin gomendatua:** aurre-irakurleak eta lehen irakurleak.
- **Nabarmentzeko aldeak:** kartoizko liburua; familia, fauna, natura; zenbakiak, elikagaiak; poesia, erritmoa, musikaltasuna; poz kolektiboa, jai-ospakizuna, adiskidetasuna; “Ama”ren (VI Konpostela Saria) eta “El viaje de mamá” liburuen egilearena berarerna.
- **Liburuaren aurrerapena:** https://issuu.com/kalandraka.com/docs/bidean-zehar-eusk

## Mariana Ruiz Johnson

(Buenos Aires, 1984)

Arte Institutu Nazionalean Ikus Arteak ikasi zituen, Buenos Airesen. Ilustrazioa Sótano Blanco eskolan landu zuen, Jose Sanabria ilustratzailea lagun zuela, eta, orobat, Europan ilustrazio tailerretan ere parte hartu zuen. VI Nazioarteko Konpostela Album ilustratuaren Saria 2013 “Ama” obrarengatik eskuratzeaz batera, 2009 urtean Kultur Ekonomikoaren Funtsaren A la Orilla del Viento sarian finalista izan zen eta 2015ean, bestalde, Silent Book Contest saria irabazi zuen. Latinoamerikako, Europako eta Asiako argitaletxeekin hainbat liburu eman ditu argitara.
https://marianaruizjohnson.wordpress.com


www.Kalandraka.com www.Pamiela.com etxea

comunicacion@kalandraka.com soltxate@pamiela.com





